


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua eraginkorra izan dadin, bezeroak ezinbestekoak dira, arrakastaren gakoa baitira. Atal honetan, gure bezero-eredua eta hauen ezaugarriak definituko ditugu. Gure enpresarekin hobeto funtzionatuko duten bezeroak argi eduki behar ditugu eta.




Hasteko, gure zerbitzua seme-alaben buru-osasunaz kezkatuta dauden gurasoei zuzenduta dago, izan ere, gaur egun gero eta gehiago dira autoestimua arazoak dituzten gazteak. Guraso hauek 40 eta 50 urte bitartekoak izan beharko lirateke, gure ustez seme-alaba nerabeak dituzten gurasoen gehiengoak adin hori baitute. Hala ere, nahiz eta beste batzuk adin hori ez izan, ez da arazo-iturri izango, eta berdin berdin atek zabalik izango dituzte.

Lehen aipatu dugun moduan, gure bezeroa gurasoa izan behar da. Gure saioak euskaraz izango direnez, gurasoek euskara ulertzea garrantzitsua da, hala ere, azpimarratu nahi dugu ez dugula inongo arazorik momenturen batean esplikazioen bat gaztelerara itzultzeko.

Konturatu gara gure ingurunean 12 eta 18 urte bitarteko gazte-multzo esanguratsu batek inseguritate asko dituela, eta gurasoek horren aurrean ez dakitela nola jokatu, ondorioz askotan komentario edo jokabide okerrak izaten dituzte. Horri aurre egiteko, gure proiektua aurkeztzen diegu Euskal Herriko gurasoei, haien seme-alabekin harreman eroso eta atsegina izan dezaten.

Nerabeen adin arte hau aukeratzearen arrazoia adin tarte honetan gorputzean aldaketa handiak izaten direla da, hau da, 12 urte betetzean gorputza bai neskei eta baita mutilei ere aldatzen hasten zaigu, horrek lagunekin, sare sozialetako pertsonekin, ezezagunekin... gure gorputza alderatzea eragiten du, eta jokabide horrek ondorio zuzenak ditu buru osasunean. Badakigu kasu batzuetan 12 urte baino lehen edo 18 urte bete eta gero gertatzen dela gorputz aldaketa hau, baina askotan ez gara ohartzen horrek ere gainerakoekin konparazioak egitea eragiten duela, nerabe askok sentitzen baitute azkarregi edo beranduegi garatzearen presioa, horregatik adierazi dugu 40-50 urteko gurasoentzat izan arren ez dugula inongo arazorik 10 edo 20 urteko nerabea duen pertsonak artatzeko.



Hori guztia esan eta gero, espero dugu alderdi hauek laguntzea gure proiektuak aurrera egin eta arrakasta izateko, xehetasun guztiak hartu nahi baititugu kontuan.